

Energiaren eta klimaren ikuspegia Euskadiko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko gida metodologikoa

© Ihobe S.A., 2025eko azaroa

Argitaratzailea: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna saila
Eusko Jaurlaritza

Urkixo Zumarkalea, 36 – 6. Solairua
48011 Bilbo
@Ihobe_Eus
www.ihobe.eus
www.euskadi.eus

Lankidetzareekin:

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HACIENDA Y FINANZAS
OGASUNA ETA FINANTZAK

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren laguntzarekin.

ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA



Edukia

1. Sarrera	5
1.1. Testuingurua.....	5
1.2. Gida honen helburuak.....	5
1.3. Aurrekontu energetiko-klimatikoak prestatzeko esparru kontzeptuala	6
2. Energiaren eta klimaren ikuspegia Euskadiko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko metodologia	10
2.1. Erabilitako ikuspegi metodologikoaren ezaugarriak.....	10
2.2. Metodologia bat etortzea aurrekontuak ikuspegi berdetik prestatzeko printzipio eta ikuspegiekin, nazio eta Europa mailan.....	12
2.2.1. Europako Batzordearen erreferentzia-esparrua.....	12
2.2.2. Espainiako Gobernuaren Metodologia.....	13
2.3. Metodologiaren faseak	13
2.3.1. Sailkapen energetiko-klimatikoa	15
2.3.2. Etiketatzea eta haztatzea	17
3. Aurrekontu energetiko-klimatikoa Euskadirako aplikatzearen emaitza orokorrak.....	22
4. Metodologia aplikatzeko gomendioak	23
4.1. Kategorien arabera gomendioak.....	23
4.1.1. Klima.....	24
4.1.2. Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa	24
4.1.3. Egokitzea eta arriskuen kudeaketa	25
4.1.4. Mugikortasun jasangarria.....	26
4.1.5. Trenbideen mantenua	26
4.1.6. Trenbideen eraikuntza.....	27
4.1.7. Ingurumena eta biodibertsitatea	27
4.1.8. Ekonomia zirkularra eta hondakinak.....	28
4.1.9. Jasangarritasuna eta 2030 Agenda.....	28

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

4.1.10. Eraikinen birgaikuntza eta erreforma	29
4.1.11. Eraikinen eraikuntza berriak	30
4.1.12. Urbanizazioa	30
4.1.13. Aire-garraioa.....	31
4.1.14. Baliabide naturalen erauzketa.....	31
4.1.15. Errepide-garraioa.....	32
4.1.16. Pertsonalaren arloko gastuak	32
4.1.17. Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa.....	32
4.2. Epe luzerako garapen metodologikorako gomendioak	33
4.2.1. Ogasun eta Finantza Sailaren aurrekontu-sisteman automatizatzeko kodeak	33
4.2.2. Ebaluazio-batzordearen sorrera, indarrean dagoen araudiaren arabera.....	34
4.2.3. Eskualde-testuingururako azterlan teknikoak	34
4.2.4. Metodologiaren urteko egokitzapena eta berrikuspena	35
5. Eranskinak.....	36
I Eranskina. Aurrekontu-partidak sailkatzeko kategorien balorazioaren eta asiguratutako ehunekoen azalpena	36
II Eranskina. Nazioarteko ikuspegi metodologikoak.....	39
Erreferentziak	42

1. Sarrera

1.1. Testuingurua

Klima-aldaketa gure garaiko erronka nagusietako bat da, eta karbono gutxiko ekonomietara zuzendutako trantsizioaren beharra nabarmentzen du. Testuinguru horretan, deskarbonizazioaren eta klima-aldaketarako egokitzapenaren helburuek erronka garrantzitsuak planteatzen dituzte lurraldeetarako eta euren administrazioetarako, bai akordio globaletan eta bai Europar Batasunak (EB) ezarritako klima-arau handinahietan, haien ekonomiaren eraldaketarekin batera.

Hori horrela, klima-aurrekontuak funtsezko tresna gisa sortu dira plangintza finantzario publikoa klima-konpromisoekin lerrokatzeko. Haien helburua honako hau da: gastu publikoaren klima-inpaktua identifikatzea, sailkatzea eta ebaluatzea, eta horren arabera baliabideen asignazio efizientea erraztea, hots, asignazio hori klima-aldaketa arintzen eta berari egokitzen laguntzen duten politika eta proiektuetara zuzentzearen alde egitea.

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak ezartzen du, bere 61. artikuluan, energiari eta klimari buruzko ikuspegia txertatu beharko dela Euskadiko Aurrekontu Orokorren legearen proiektuan, aurrekontu horien %2,5 ekintza klimatikorako ekintzetara bideratuz. Horrek esan nahi du aurrekontuetan trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan inpaktu positiboa duten jarduerak identifikatu beharko direla, bai arintzekoak eta bai egokitzekoak, ezartzen diren gidalerroen arabera.

Horrez gain, hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, legea indarrean jarri eta 18 hilabeteko epean, legea betetzeko bideratuko diren aurrekontu-partidak identifikatzeko eta sortzeko gidalerroak landuko dituztela Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak.

1.2. Gida honen helburuak

Dokumentu honen helburua da gidalerro egokiak eskaintzea energiaren eta klimaren ikuspegia Euskadiko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak ezartzen duen bezala. Bereziki zuzenduta dago Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailean aurrekontuak prestatzeaz arduratzen diren taldeei, baina baita Administrazio Orokorraren aurrekontuak prestatzeko lanean inplikaturik dauden beste arlo batzuetako arduradunei ere, eta, halaber, Erakunde Autonomoetan, Partzuergoetan, Zuzenbide pribatuko Erakunde publikoetan eta Sozietate zein Fundazio Publikoetan zeregin hori betetzen dutenei.

Dokumentuak baliagarria izan nahi du Aurrekontu Orokorren etiketatze energetiko-klimatikoaren dokumentu metodologiko gisa; orobat, inspiratzailea izan nahi du lehen aipatu dugun hirugarren

xedapen gehigarrian aipatzen diren gidalerroak prestatzeko, euren aurrekontuen ardura duten erakundeak gai izan daitezten etiketatze energetiko-klimatikoarekin zerikusia duten partidak identifikatzeko eta sailkatzeko. Era horretan, metodologia egituratu eta erreplikagarri bat eskaini nahi da, baliabide publikoen asignazioa errazteko Euskadiko trantsizio energetiko eta klimatikoa bideratzen duten jardueri, eta, lege horren helburuarekin bat etorriz, klima-aldaketa beranduenek 2025. urtean lortzeko eta lurraldeak klima-aldaketa aurrean duen erresilientzia handitzeko.

Gainera, proposatutako metodologiak erraztuko du Euskadiko aurrekontu-asignazioa Europako beste eskualde batzuetakoarekin alderatzea, baliabide publikoen arloan, zeren horrek ahalbidetuko baitu hobekuntza-aukerak identifikatzea, hau da, lehentasunak hobeto ezartzea eta aurrekontuak birbideratzea deskarbonizaziora eta lurraldeak klima-aldaketa aurrean duen erresilientzia handitzera zuzendutako neurrietara.

Azkenik, ikuspegi metodologiko honek laguntza eskaini ahal izango du finantziazio-arrakalak identifikatzeko eta kanpo-baliabideak eskuratzeko (publikoak edo pribatuak, tokikoak edo nazioartekoak), Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa eta gaitasuna erakutsiz deskarbonizaziorako eta klima-aldaketa egokitzeko jardueren kofinantziazioan.

1.3. Aurrekontu energetiko-klimatikoak prestatzeko esparru kontzeptuala

Literaturak aurrekontu berdeen edo ingurumen-aurrekontuen terminoa jasotzen du, orokorrean; hauek nahiko berriak diren kontzeptu eta praktikak dira, eskura zegoen informazioa sakabanatzera eraman dutenak. Hainbat erakunde, herrialde eta txostenek askotariko ikuspegiak, metodologiak eta definizioak garatu dituzte, lehentasun eta aplikazio-esparru desberdinak islatuz. Dibertsitate horrek kontzeptuaren bilakaera erakusten du, baina erronkak ere planteatzen ditu beraren estandarizaziorako eta nazioarteko alderaketarako.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA-OECD, bere ingelesezko siglengatik) eta EBk praktiken mapaketa bat egin dute, inkesten bidez, joerak eta hainbat herrialdek erabilitako metodologiak identifikatuz, eta nabarmendu da Rioko Markatzaileen¹ erabilera dela tresna nagusia. Rioko Markatzaile horiek klima-finantziazioa nazioartean arakatzeko metodologia bat da, eta ahalbidetzen du gastu publikoa sailkatzea ingurumen-helburuei egiten dion ekarpenaren arabera. Azpimarratu behar da ezen, ELGAk eta EBk Rioko Markatzaileen erabilera orokorra sustatu duten arren, beste herrialde batzuek, hala nola Frantziak, metodologia hori egokitu egin dutela, irizpide zehatzagoak aplikatzea ahalbidetzen duten azterketa sektorial zehatzagoak garatuz.

¹ ELGAk 1998an garatuak. Ikus: [Directorate general for international partnerships - New tutorial video on Rio markers launched](#) (ELGA, 2018)

Garapenerako Banku Interamerikarrak (GBI), Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) eta Munduko Bankuak ere euren ekarpena egin dute, esperientziak eta aplikatutako ikuspegiak biltzen dituzten txostenekin. Zehazki, NBGPk laguntza eman du aurrekontu berdeak zenbait herrialdetan inplementatzeko, azterketa espezifikoak sortuz testuinguru bakoitzerako. Gainera, klimarako gastu publikoa sartu du termino bezala. MBk, berriz, metodologiaren arabera bereizitako praktikak dokumentatu ditu, baina xehetasun maila mugatu batez, gastu publiko klimatikoaren terminoa sartuz.

Jarraian aurkezten den 1. Taulak definizio nagusiak, ikuspegi metodologikoak eta aurrekontu publikoen aplikazioa jasotzen ditu, herrialde desberdinetan, zenbait erakundek egindako txosten eta azterketak oinarritzat hartuta.

1. Taula. Aurrekontu berdeen definizio nagusiak

Erakundea / Txostena	Definizioa
ELGA – Green Budgeting in OECD Countries	Aurrekontu berdea praktika bat da, aurrekontu-politikaren tresnak erabiltzen dituen ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzeko, beste alderdi batzuen artean biodibertsitatea, airearen kalitatea eta ura. Ez dago ikuspegi bakarra haren inplementaziorako, zeren herrialde bakoitzeko finantza publikoen kudeaketa-esparrura egokitu behar baita, kontuan hartuz bai haren indarguneak eta bai oraingo aurrekontu-prozesuaren mugak (ELGA, 2021).
EB - How Green Budgeting is Embedded in National Budget Processes	Prozesu bat, non aurrekontu-elementuen ingurumen-ekarpenak identifikatu eta ebaluatzen diren, jarduera-adierazle espezifikoaren arabera, aurrekontu-politikak ingurumen-helburuekin hobeto lerrokatzeko, hau da, ebaluatzeko zer neurritan laguntzen dieten aurrekontuaren elementuek helmuga ekologikoei (Europar Batasuna, 2023).
I4CE - Greener, better, stronger: Factors for the successful implementation of green budgeting in EU Member States	Aurrekontu berdea tresna multzo bat da, gobernuei aurrekontu publikoak klima- eta ingurumen-helburuekin lerrokatzen laguntzeko diseinatuta dagoena (I4CE, 2023).
NBGP- Gastu Publikoaren Azterketa	Climate Public Expenditure and Institutional Review (CPEIR, bere ingelesezko siglengatik) diagnostiko-tresna bat da, klima-alaketaren

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

eta Klima Aldaketarako Instituzionaltasuna	arazoak aurrekontu-gastu nazionala eta azpinazionala asignatzeko eta exekutatze prozesuan txertatzeko aukerak eta horren mugak ebaluatzen dituen (NBGP).
GPI – Esparru kontzeptuala gastu publikoak klima-alaketaren arloan sailkatzeko.	Gastu publiko klimatikoa klima-alaketa arintzera edo berari egokitzea zuzendutako gastua da. Gainera, badira zeharkako gastuak, klima-alaketari bereziki heltzera zuzentzen ez diren arren inpaktuak sortzen dituztenak kudeaketa klimatikoan (GPI, 2022).

Europako Batzordeak aurrera egin du irizpideen estandarizazioan, EBren jarduera jasangarrietarako Taxonomiari buruzko Erregelamenduren bitartez; izan ere, bertan ezartzen zer jarduera ekonomiko har daitezkeen jarduera jasangarritzat, 6 ingurumen-helburu hauek oinarritzat hartuta: 1. Klima-alaketa arintzea, 2. Klima-alaketara egokitzea, 3. Itsas baliabide hidrikoen erabilera jasangarria eta babesa, 4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, 5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, eta 6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

Aurrekoa kontuan hartuta, aurrekontu berdeen helburua da sei helburu horiek betetzen laguntzea. Beste alde batetik, aurrekontu energetiko-klimatikoek horietako biri soilik heltzen diete: 1. Klima-alaketa arintzea eta 2. Klima-alaketara egokitzea. Alde horretatik, aurrekontu berdeen diseinurako aplikatutako metodologia aplikagarria da aurrekontu energetiko-klimatikoetarako, baina azken horien irismen tematikoaren berezko mugekin. Hala, “aurrekontu energetiko-klimatikoa” kategoria espezifikotzat har daiteke “aurrekontu berdearen” esparru zabalagoaren barruan.

Beste alde batetik, aurrekontu berdeak prestatzeko eta haien jarraipen eta ebaluazioa egiteko metodologiak zenbait dimentsioren arabera karakterizatu daitezke, hala nola: aurrekontuek espero dituzten sarrerak edo gastuak; zer unetan egiten den ingurumen-inpaktuaren balorazioa; granulartasun maila (edo analisiaren xehetasuna); eta partida edo programen etiketatze-metodologiak eta -tipologiak. 2. Taulan, dimentsio horien laburpen labur bat erakusten da

2. Taula. Ikuspegi metodologikoen dimentsioak

Dimentsioa	Ezaugarria
Ikuspegia	- Gastuei buruzko ikuspegia - Sarrerei buruzko ikuspegia
Noiz egiten den ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa	Ex ante:

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

	✓ Espero den inpaktuaren edo inpaktu potentzialaren ebaluazioa aurrekontuen diseinu-fasean. ✓ Espero den inpaktuaren edo inpaktu potentzialaren ebaluazioa aurrekontua diseinatuta dagoenean, baina oraindik ere exekutatu gabe. • Ex post (inpaktu errearen ebaluazioa, aurrekontuak exekutatuta daudenean)
Hurbilpena (granulartasun maila)	• Goitik behera (<i>top-down</i>): helburuak, jarduerak eta partidak biltzen dituzten programak hartzen dira abiapuntutzat • Behetik gora (<i>bottom-up</i>): programak osatzen dituzten jarduera edo helburuei dagozkien partidak hartzen dira abiapuntutzat.
Etiketatzeko-metodologiak (<i>tagging</i>)	• Rioko Markatzailea – ELGA (metodologia estandarizatuaren bat da, eta herrialde eta eskualde batzuek euren aurrekontu-beharretara egokitu dute). • Aurrekontuak ikuspuntu ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua (EBren Taxonomia Erregelamenduekin lerrokatua). • Aurrekontu berdeak prestatzeko metodologia, Frantziako Gobernuak erabilia: bat dator Europar Batasunak aurrekontuak ikuspegi ekologikotik egiteko ezarri duen erreferentzia-esparruarekin, eta honako oinarri hauek ditu bereziki: EBko Taxonomia; europar bonu berdeak jaulkitzeko betekizunak; Frantziako klima-alaketari buruzko Estrategiaren lehentasuna; eta kasu-azterketak egitea sektore espezifikotarako (hala nola RT 2012 araudi termikoa, honako hau estimatzen duena: osoko gastuaren zer ehuneko dagokien efizientzia energetikoko neurriei, eraikin berrietan). • Beste erreferentziazko metodologia batzuk (beste batzuekin konbinatu ohi dira): CPEIR, Joint MDB, ICMA Green Bonds. • Euren metodologia propioak jadanik indarrean dituzten beste batzuen egokitzapenetik abiatuta prestatzen dituzten beste herrialde, eskualde eta hiri batzuen esperientziak.

Etiketatzeko mota	- Etiketatzeko bitarra (<i>binary tagging</i>): aldekoa edo ez aldekoa, % 100 edo % 0 asignatzen duena. - Bi balio baino gehiago dituen etiketatzeko (<i>scaled taggings</i>): askotariko etiketak erabiltzen dira (oso aldekoa, aldekoa, partzialki aldekoa, ez-aldekoa, partzialki ez-aldekoa, eztabaidagarria (edo zalantzazkoa), mistoa, neutroa...), eta etiketa bakoitzari haztapen bat aplikatzen zaio, adibidez (Rioko Markatzaileen metodologia aplikatuz): % 0 neutroa, % 40 partzialki aldekoa, eta % 100 aldekoa.
-------------------	---

Dimentsio horiek kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu energetiko-klimatikoak diseinatzerakoan eta estimatzerakoan.

2. Energiaren eta klimaren ikuspegia Euskadiko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko metodologia

2.1. Erabilitako ikuspegi metodologikoaren ezaugarriak

Aukeran dauden ikuspegi metodologikoen ezaugarriak jarraituz (2. Taula), ondorengo Taulan laburbiltzen da Euskadiko Aurrekontu Orokorren etiketatzeko energetiko-klimatikoa egiteko aplikatutako den ikuspegia (3. Taula). Indarrean dauden nazioarteko estandarrekin bat datorren ikuspegi hori **Frantziako**² metodologian inspiratu da bereziki, zeren erreferentzia esanguratsua baita europar panoramaren baitan, bere gardentasunagatik, esperientziagatik eta hobekuntza etengabeko zikloengatik. Kasu hau sakontasun handiagoz zehazten da eranskin metodologikoetan.

3. Taula. Euskadiren kasuaren ikuspegi metodologikoaren ezaugarriak

Dimentsioa	Ezaugarria
Ikuspegia	Erakunde hauen gastuak: Administrazio Orokorra, Erakunde Autonomoak, Partzuergoak, Zuzenbide pribatuko Erakunde publikoak, Sozietate eta Fundazio Publikoak.

² [The French Green Budget : a transparency tool to serve the ecological transition](#) (Frantziako Gobernua, 2024)

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren unea	• Ex ante Aurrekontuak diseinatzeko fasean espero den edo lor daitekeen inpaktuaren ebaluazioa.
Hurbilpena (granulartasun maila)	• Behetik gora (<i>bottom-up</i>): programak osatzen dituzten jarduera edo helburuei dagozkien partidak hartzen dira abiapuntutzat.
Etiketatzeko-metodologia (<i>tagging</i>)	• Aurrekontu berdeak prestatzeko metodologia, Frantziako Gobernuak erabilia, Euskadiko klima-aldaketa arintzeko eta berari egokitzeko helburuei eta bere aurrekontu-egoerari egokituia. Metodologiaren proposamena 2019an diseinatu zen, eta harrezkero inplementatu egin da eta hobetuz eta osatuz joan da, 2024ko azken txostenak erakusten duen bezala (Frantziako Gobernuak, 2024). Nazioartean erreferentzia den metodologia bat da, zeren osatuenetako eta gardenenetako bat baita. • Europako Batzordearen aurrekontuak ikuspuntu ekologikotik prestatzeko erreferentzia-esparrua eta EBren Taxonomia. • Rioko Markatzileak-ELGA.
Etiketatzeko motak	• Bi balio baino gehiago dituen etiketatzea (<i>scaled tagging</i>). Ondoren ageri diren etiketak erabiltzen dira aurrekontu-partiden sailkapenerako, eta klima-aldaketa arintzeko edo berari egokitzeko helburuari begira duten inpaktuaren edo egiten duten ekarpenaren arabera haztatzen dira. ✓ Aldekoa (% 100 aldekoa) ✓ Partzialki aldekoa (aldekoa ehuneko jakin batean eta neutroa) ✓ Partzialki ez-aldekoa (ez-aldekoa ehuneko jakin batean eta neutroa) ✓ Ez-aldekoa (% 100 ez-aldekoa) ✓ Mistoa (aldekoa eta ez-aldekoa)

	✓ Neutroa edo definitu gabekoa (ez du inpakturik, edo ezin determinatu daiteke eskuragarri dagoen informazioarekin) <i>Inpaktua diru aldetik kuantifikatzeko, partzialki aldekoak edo ez-aldekoak diren etiketen ehunekoa -aldekoa edo ez-aldekoa-aldekoen eta ez-aldekoen guztizkoei gehitzen zaie.</i>
--	--

2.2. Metodologia bat etortzea aurrekontuak ikuspegi berdetik prestatzeko printzipio eta ikuspegiekin, nazio eta Europa mailan

2.2.1. Europako Batzordearen erreferentzia-esparrua

Ikuspegi energetiko-klimatiko Euskadiko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko metodologia bat dator Europar Batasunaren aurrekontu berdeak prestatzeko sustatutako esparru eta printzipioekin³. Europako Batzordeak EBko Taxonomiaren 6 helburuen inguruan egituratzen ditu aurrekontu berdeak. Horri gehitzen zaio “kalte esanguratsurik ez sortzeko” printzipioa, zeharkako irizpide gisa aplikatzen dena bai klima-helburuetarako eta bai ingurumen-helburuetarako, indarrean dagoen legediarekiko koherentzia bermatuz.

Nahiz eta asmoa ez den eredu bakarra ezartzea Estatu kideen aurrekontu berdeak egiteko, bai sustatzen da konbergentzia metodologiko bat, alderaketak egin ahal izateko eta koherentzia bilatzeko Europa mailan. Alde horretatik, gida honetan aurkeztutako metodologia noranzko horretatik doa, Europako aurrekontuak ikuspegi berdetik egitearen zutabe nagusiak erreferentziazat hartuta: klima-aldaketa arintzea eta berari egokitzea, funtsezko ardatz gisa; etiketatze klimatiko (*climate tagging*) aurrekontu-partidetan aplikatzea; eta modu garbian bereiztea klima-helburuei begira inpaktu guztiz aldekoa edo partzialki aldekoa duten partidak, edo ez-aldekoa, mistoa, neutroa edo definitu gabekoa dutenak.

Orobat, Europako Batzordeak gomendatzen du aurrekontu berdeak prestatzeko lanaren koordinazioa aurrekontu-agintaritzaren esku egon dadila, sailen arteko lan-mekanismoak ezarriz eta gobernuz kanpoko eragileen parte-hartzearekin, esparru metodologiko sendoak eta iraunkorrak bermatzeko.

³ https://economy-finance.ec.europa.eu/economic-and-fiscal-governance/national-fiscal-frameworks-eu-member-states/green-budgeting-eu_en

Halaber, beharrezkotzat jotzen du aldizkako ebaluazioak egitea, emaitzetarako irisgarritasun publikoa bermatzea, eta berrikuspen aditu independentea erraztea, era horretan integratzeko EBk sustatzen dituen printzipio hauek: gardentasuna, kontuak ematea eta etengabeko hobekuntza.

2.2.2. Espainiako Gobernuaren Metodologia

Estatuaren Aurrekontu Orokorrak trantsizio Ekologikoarekin⁴ lerrokatzeko metodologia, Europako Batzordearen Erreferentzia-esparruaren printzipioekin bat etorritik, honetan datza: aurrekontu-programen gastuak sailkatzea EBko Taxonomiaren sei ingurumen-helburuei egiten dieten ekarpenaren arabera, zeren Espainiako Gobernuak bere egin baititu legedia nazionalen: 1. Klima-aldaketa arintzea, 2. Klima-aldaketara egokitzea, 3. Itsas baliabide hidrikoen erabilera jasangarria eta babesa, 4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, 5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, eta 6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

Aurrekontu-programen etiketatzea lau kategoriaren arabera egiten da: altua (0,7-1,0), ertaina (0,3-0,7), baxua (0-0,3) edo neutroa/zehaztu gabea (0). Programak sistematikoki etiketatzen dira euren ingurumen-inpaktuaren arabera, ingurumen-helburuak betetzera bideratzen diren baliabide publikoak estimatzeko.

Metodologia hau gastu publikoaren azterketan zentratzen da, eta gastuaren kategoria jakin batzuk uzten ditu kanpo (hala nola pentsioak, finantza-gastuak edo pertsonalaren arloko gastuak), ingurumen-helburuekin loturarik ez dutelako edo oso lotura txikia dutelako.

Aurrekotik ondorioztatu daiteke, irismen eta ikuspegi aldetik desberdintasun batzuk egon arren, Euskadiko aurrekontu orokorretarako aukeratutako metodologia koherentea dela nazio mailan aplikatzen ari denarekin, eta horren sendotasuna eta trinkotasuna ematen dizkio.

2.3. Metodologiaren faseak

Garatutako metodologia fase batzuen inguruan antolatzen da. Hasteko, aurrekontu-partida bakoitza ikuspegi energetiko-klimatikotik sailkatzen da. Sailkapenak ahalbidetzen du etiketatzea egitea, haztapena egitea, eta determinatzea ea aurrekontu-partida bakoitzak ekarpenik egiten ote dien klima-aldaketa arintzeko eta/edo berari egokitze helburuei. Bukatzeko, emaitzak agregatu eta kuantifikatzen dira. Horretarako, aurreikusten da metodologia hau tresna informatiko batean integratzea, hots, aurrekontu-partidak erraztasunez eta sistematikoki identifikatzea eta sailkatzea ahalbidetzen duen tresna informatiko batean.

Balorazio hau lan-taldeak egindako hasierako hurbilpen bat da, jadanik prestatutako aurrekontuetatik abiatuta -taldearen partaideak Iñobe, Orkestra eta Energiaren Euskal Erakundea

⁴<https://www.sepg.pap.hacienda.gob.es/sitios/sepg/es-ES/Presupuestos/InformesImpacto/IAPGETE2023/Paginas/IATE2023.aspx>

dira, eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Aurrekontu Zuzendaritzaren lankidetzarekin.

Nolanahi ere, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako gidalerroak garatuta daudenean, euren aurrekontuen ardura duten erakundeak izango dira kategorizazio hori egingo dutenak, nahiz eta energiaren eta klima-aldaketaaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak kategorizazio horren berrazterketa egin dezakeen.


Erakunde horiek hobeto ezagutzen dutenez euren partidetan sartuta dagoen xehetasuna, aldeko aurrekontuaren ehunekoa aldatu egin liteke etorkizunean, orain kalkulaturakoen aldean.

Alde horretatik, oso gomendagarria da Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren aldeko partidak izan ditzaketen aurrekontuak eta beste aurrekontu neutro edo ez-aldekoekin nahastuta daudenak partida desberdinetan bereiztea, zeren horrek ahalbidetuko baitu gaur egun horietan sartuta dagoen aldeko zatia kategorizatzea. Adibidez, berrikuntzarako eta deskarbonizaziorako partidak barne hartzen dituen laguntza-programa jeneriko baten aurrekontua bi partidatan bereizi liteke, bata deskarbonizazioarena (aldeko partida gisa kategorizatuko litzatekeena) eta bestea berrikuntzarena (neutroa izango litzatekeena).

Horrez gain, gomendagarria da metodologia urtero egokitzea eta berraztertzea, denboran zehar gertatzen diren aldaketak kontuan hartuz (teknologikoak, sozialak, etab.), baldin eta aldaketak ekarri baditzakete aurrekontu-partiden etiketatzean; kontuan hartu behar dira, halaber, kategorizazioa perfektionatzeko egin litezkeen azterketa osagarriak ere, horrelakorik egonez gero.

1. Irudiak fase metodologikoak erakusten ditu, hasieran gauzatuko direnak (urdinez) eta etorkizunean garatuko direnak (gorriz) bereiziz.

1. Irudia. Euskadiko aurrekontu energetiko-klimatikoa egiteko metodologiaren faseak



2.3.1. Sailkapen energetiko-klimatikoa

Aipatu den bezala, sailkapen energetiko-klimatikoa (edo *“energy-climate-tagging”*) gastuak euren inpaktu energetiko-klimatikoaren arabera etiketatze prozesua da. Euskadiko ikuspegi energetiko-klimatikoa txertatzeko metodologian, berau Eusko Jaurlaritzako partiden mailan aplikatzen da.

Frantziako Gobernuak erabilitako metodologia erreferentziazat hartuta, aurrekontu-partida bakoitzaren azterketa jokaleku kontrafaktual bat kontsideratuz egin da; izan ere, horrek ahalbidetzen du gastu baten inpaktu erreala ebaluatzea, gastu hori existitzen ez den edo bestelako modu batean asignatzen den egoera hipotetiko batekin alderatzearen bidez. Ikuspegi hori aplikatzen da zalantzak daudenean, hau da, ez dagoenean garbi ea gastu batek aldeko ekarpena egiten dion edo ez trantsizio klimatiko eta energetikoari. Jokaleku kontrafaktual batez hausnartzean, baloratu egin daiteke ea gastu hori ez egoteak aurrerapen txikiagoa edo handiagoa ekarriko lukeen ingurumen-helburuei begira.

Sailkapen-prozesurako, beharrezkoa da definitzea zer etiketatze mota asignatzen zaion partida bakoitzari. 3. Taulan adierazten denez, bi balio baino gehiago dituen etiketatze bat ezarri da (*scaled tagging*), etiketa mota batzuk barne hartzen dituenak: aldekoa, partzialki aldekoa, partzialki ez-aldekoa, ez aldekoa, mistoa eta neutroa edo definitu gabekoa. Etiketa horiek jarraian deskribatzen dira, 2. Irudian.

2. Irudia. Etiketatze energetiko-klimatiko motak

Aldekoak	Zuzeneko edo zeharkako ekarpena egiten diote trantsizio energetiko eta klimatikoari, klima-aldaketa arintzeko edo berari egokitzeko helburuan inpaktu positiboa duten jarduerak, azpiegiturak edo teknologiak finantzatzuz.
Partzialki aldekoak	Zuzeneko edo zeharkako inpaktu positiboa dute trantsizio energetiko eta klimatikoan, baina ez osorik. Bere inpaktuaren zati bat neutrotzat hartzen da.
Partzialki ez-aldekoak	Nolabait negatiboak diren inpaktuak sor ditzakete ingurumen-alderdi bazueta, baina egokitze- eta arintze-heburuetarako guztiz kaltegarriak izatera iritsi gabe. Haien inpaktuaren zati bat neutrotzat jotzen da.
Ez-aldekoak	Klima-aldaketa arintzeko edo berari egokitzeko helburuan inpaktu guztiz negatiboa duten jarduerak, azpiegiturak edo teknologiak pizgarritz bultzatu edo finantzatzen dituzte.
Mistoak	Klimaren ikuspuntutik alde batetik aldekoak eta bestetik kontrakoak (ez-aldekoak) diren aurrekontu-partidak biltzen ditu; horrek eragozten du inpaktua noranzko bakarrean zehaztasunez sailkatzea.
Neutroa edo definitu gabekoa	Neutroa: Trantsizio energetiko eta klimatikoan inpaktu esanguratsurik ez duten jarduketak dira, hau da, arintze- eta egokitze-helburuei zuzeneko ekarpenik, ez eta kalterik ere, egiten ez dietenak. Definitu gabekoa: Jarduketa hauen inpaktua ezin baloratu daiteke, ezta kuantifikatu ere egin, eskuragarri dagoen informazioarekin, dela datu nahikorik ez dagoelako dela adostasun zientifiko garbirik ez dagoelako trantsizio energetiko eta klimatikoan duten inpaktuaz.

Horrez gain, aurrekontu-partidak etiketatzeko eta haztatze prozesurako 15 kategoria definitu dira, horrek ahalbidetzen baitu partidak euren inpaktuaren graduaren arabera sailkatzea, hau da, zehaztea ea haien inpaktua aldekoa edo ez hain aldekoa den trantsizio energetiko eta klimatikorako (3. Irudia). Gogoratu behar dugu ikuspegi energetiko-klimatikoaz aztertzen ari garela, hau da, zer inpaktu duten aurrekontuek klima-aldaketa arintzeko edo berari egokitzeko helburuan. Irudi honetan itxuraz europar taxonomiaren gainerako helburuekin lotuta dauden kategoriak agertzen badira, horren arrazoia da modu batean edo bestean badutela inpaktua aztergai dauden bi eremuetan.

3. Irudia. Partiden sailkapenerako kategoria energetiko-klimatikoak



2.3.2. Etiketatzeta eta haztatzea

Etiketatzeta motak eta aurrekontu-partidak sailkatzeko kategoriak definitu ondoren, etiketatzea egin behar da. Prozesu horretarako, kategoria bakoitzari atxikitako gako-hitzak aukeratu dira, Euskadiko Aurrekontu Orokorrak prestatzeko erabilitako hiztegiaren arabera; helburua da identifikatzea, hasieran, zer partida kategorizatu daitekeen energetiko-klimatiko bezala. 4. Taulan, kategoriak zehazten dira haien gako-hitzekin. Gako-hitz horiek baliagarriak izan behar dute hasierako identifikaziorako eta aurrekontu energetiko-klimatikoen diseinuan inplikaturako taldeak horiek erabiltzera ohitu daitezela; dena dela, partidak banan-banan aztertu behar dira, dagokien aurrekontuaren programaren azken helburua kontuan hartuta, eta baita partidak berak duen azken helburua ere kontuan hartuta.

Ondorengo atalean (Gomendioak), kategorien azalpen zehatzago bat eskaintzen da, aurrekontu-partidak etiketatzerakoan kontuan hartu beharreko gomendio batzuekin batera.

4. Taula. Berrikuspenaren ostean aurkitutako hitz-gakoen zerrenda ez-exhaustiboa, kategoria energetiko-klimatikoaren arabera⁵.

Kategoria	Gako-hitzak
Klima	"klima", "arintzea eta egokitzea", "deskarbonizazioa eta erresilientzia", "BC3"
Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa	"arintzea", "deskarbonizazioa", "efizientzia energetikoa", "energia berriztagarriak", "eguzki-", "eolikoa", "hidrogenoa", "biomasa", "Mutriku", "azpiegitura energetikoak", "fotovoltaikoa", "trantsizio energetikoa", "Mubil", "elektrolizatzailea", "energetikoki efizienteak", "berriztagarria", "energetikoa", "climate change", "kutsadura atmosferikoa", "GNK", "elektrifikazioa"
Egokitzea eta arriskuen kudeaketa	"erresilientzia", "arriskuen kudeaketa", "uholdeak", "segurtasun hidrikoa", "azpiegitura erresilienteak", "klima aldaketara egokitzea", "klimatikoa", "larrialdi klimatikoa", "larrialdiak/meteorologia"
Mugikortasun jasangarria	"tranbia", "autobus elektrikoak", "mugikortasun jasangarria", "metroa", "tranbiak", "MOVES", "garraio publikoa", "Arabako garraioa", "Gipuzkoako Garraioa", "Garraio Partzuergoa", "MAAS mobility as service", "BEA", "pasabidea"
Trenbideen mantenua	"funikularren mantenua", "trenbidearen mantenua", "katigamendu berriak", "geltokiaren egokitzapena"
Trenbideen eraikuntza	"trenbidea", "trenbide-", "trenbide-sarea", "tunela", "Gipuzkoako tarteak", "funikularra", "geltoki berria", Eusko Trenbideak", "tren berriak", "ETS", "trenbide-azpiegitura", "Trenbideak".
Ingurumena eta biodibertsitatea	"biodibertsitatea", "kontserbazioa", "ekosistemak", "lehengoratzeko", "ingurune naturalaren babesa", "Ekoetxea", ingurumena", "Urdaibai", "Txingudi", "Añana", "ingurumen-

⁵ Gako-hitz hauek aurrekontu-partidan sartzeak ez dakar berekin euren zuzeneko kategorizazioa, zeren gako-hitz hauekin bai aldekoak eta bai neutroak diren partidak agertu baitaitezke.

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

	hezkuntza", "ingurumen-ikerketak", "Mater Museoa", "airearen kalitatea"
Ekonomia zirkularra eta hondakinak	"ekonomia zirkularra", "hondakinen kudeaketa", "hondakinak", "birziklapena", "ekoberrikuntza", "berrerabilera", PIMA"
Jasangarritasuna, GJH eta 2030 Agenda	"jasangarritasuna", "GJH", "2030 agenda", "plangintza jasangarria", "jasangarriak", "garapen jasangarria"
Eraikinen birgaikuntza eta erreforma	"birgaikuntza", "eraikinetako erreformak", "birgaitze-obrak", "birgaikuntza integrala", "eraikinen birgaikuntza", "eraikinen birgaikuntza", "eraikinen eraberritzea"
Eraikinen eraikuntza berriak	"eraikuntza berriak", "urbanizazioa", "zuzkidura-alajamenduak", "etxebizitzak", "BOE", "zuzkidura-bizitokiak", "eraikuntza"
Urbanizazioa	"urbanizazioa", "lursailen urbanizazioa", "urbanizazio-obrak"
Baliabide naturalen erauzketa	"meatzaritza", "ikatzaren erauzketa", "zulaketa", "fracking", "petrolio", "gas naturala", "ustiapena", "Viura", "gasa", "erregaiak"
Errepide-garraioa	"errepideak", "autopistak", "errepideen eraikuntza"
Aire-garraioa	"aireportu-", "aireportuen hedakuntza", "abiazioa"

Sailkapen hori modu egituratuan egiteko, ehuneko klimatiko bat definitu da 3. Irudiaren 15 kategorietarako; ehuneko horrek adierazten du bere aurrekontuaren zein zatik egiten dien ekarpena ingurumen-helburuei. Ehuneko hori partida bakoitzaren balioari aplikatzen zaio (balio hori eurotan neurtuta), eta horrek ahalbidetzen du Eusko Jaurlaritzaren osoko aurrekontu energetiko-klimatiko kalkulatzea. Gainera, kategoria bakoitza bere helburu nagusiaren arabera sailkatzen da: egokitzea (klimatek aldaketaren ondorioak murrizteko ekintzak) edo arintzea (berotegiko efektuko gasen -BEG- isurketak murrizteko ekintzak). 5. Taulan, honako hau zehazten da: dagokien kategoria, gastu mota, klima-helburua, asignatutako ehunekoa eta asignaziorako erabilitako erreferentzia-iturria. Aurrerago sartuta dagoen eranskin batean (II. Eranskina), ehuneko bakoitzaren aukeraketa justifikatzen duten azalpen zehatzak eskaintzen dira, erreferentzia-iturri egokiak oinarritzat hartuta.

Amaierako kalkulurako -beraren emaitzak 3. kapituluaren aurkezten dira-, sailkapen mota bakoitzera (aldekoa, ez-aldekoa eta mistoa) zuzendutako aurrekontua biderkaketa honen bidez lortzen da: kategoria jakin bati (klimatek, arintzea, etab.) asignatutako aurrekontu-partida bakoitzaren aurrekontua

bider kategoria horretan “aldekoari”, “ez-aldekoari” edo “mistoari” ⁶ asignatutako ehunekoa, hirugarren zutabearen sartuta dagoena.

5. Taula. Aurrekontu-partidak sailkatzeko kategoriak

Kategoria	Sailkapena	Klima-helburua	Ehunekoa	Erreferentziazko metodologia
Klima	Aldekoa	Arintzea eta egokitzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak
Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa	Aldekoa	Arintzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak
Egokitzea eta arriskuen kudeaketa	Aldekoa	Egokitzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak
Mugikortasun jasangarria	Aldekoa	Arintzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak

⁶ “Aldekoa”, “ez-aldekoa” eta “misto” sailkapenetan, asignatutako ehunekoa % 100 da; “partzialki aldekoa” eta “partzialki ez-aldekoa” sailkapenetan berriz, asignatutako ehunekoa % 100etik beherakoa da.

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

Trenbideen mantenua	Aldekoa	Arintzea	% 100	Frantziako Gobernuaren Metodologia
Trenbideen eraikuntza	Mistoa	Arintzea eta egokitzea	% 100	Frantziako Gobernuaren Metodologia
Ingurumena eta biodibertsitatea	Partzialki aldekoa	Egokitzea	% 33	Europar Taxonomia
Ekonomia zirkularra eta hondakinak	Partzialki aldekoa	Arintzea	% 17	Europar Taxonomia
Jasangarritasuna eta 2030 Agenda	Partzialki aldekoa	Egokitzea	% 12	Garapen jasangarriaren helburuak - GJH
Eraikinen birgaikuntza eta erreforma	Partzialki aldekoa	Arintzea	% 15	Frantziako Gobernuaren Metodologia
Eraikuntza berriak	Partzialki aldekoa	Arintzea	% 6	Frantziako Gobernuaren Metodologia
Urbanizazioa	Partzialki ez-aldekoak	Arintzea	% 20	Frantziako Gobernuaren Metodologia
Baliabide naturalen erauzketa	Ez-aldekoa	Arintzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak
Errepide-garraioa	Ez-aldekoa	Arintzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren Metodologia eta Rioko Markatzaileak
Aire-garraioa	Ez-aldekoa	Arintzea	% 100	Aurrekontua ikuspegi ekologikotik prestatzeko europar erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuaren


				Metodologia eta Rioko Markatzaileak
--	--	--	--	-------------------------------------

3. Aurrekontu energetiko-klimatikoa Euskadirako aplikatzearen emaitza orokorrak

Deskribatutako ikuspegi metodologikoa kontuan hartuta, lehenengo estimazio bat egin da kalkulatzeko zer ekarpen egin dien Euskadiko aurrekontuan jasotako gastuak trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari, 2023., 2024. eta 2025. urteetan. Lehenengo hurbilpen horren emaitzak 4. Irudian erakusten dira; bertan ikus daiteke aldeko gisa sailkatutako gastuek bilakaera positiboa izan dutela denboran zehar; nolanahi ere, haien proportzioak Legean ezarritako atalasetik (% 2,5) behera egoten jarraitzen du. Beste alde batetik, gastu mistoek gora egin dute 2024an, baina 2025erako jaitsiera txiki bat proiektatzen da.

Garrantzitsua da aipatzea neutro edo definitu gabeko gisa sailkatutako gastuen ehunekoa nahiko altua dela. Aurreikustekoa da ehuneko horrek behera egitea etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietan, kontuan hartuta aurrekontuen estimazioaz arduratzen diren erakundeek informazio zehatzagoa izan lezaketela gaur egun orokorrak diren partida batzuei buruz.

4. Irudia. Euskadiko 2023, 2024 eta 2025eko aurrekontu klimatikoak



	2023	2024	2025
Aldekoa	1,5%	1,7%	1,9%
Ez-aldekoa	0,13%	0,10%	0,08%
Mistoa	1,4%	1,9%	1,4%
Neutroa-Definitu gabekoa	97,0%	96,3%	96,7%

4. Metodologia aplikatzeko gomendioak

Atal honetan, metodologiaren aplikaziorako gomendio batzuk biltzen dira. Alde batetik, kategoria batzuei buruz kontuan hartu behar diren kontsiderazio batzuk jasotzen dira, aurrekontuen sailkapenari begira. Beste alde batetik, epe luzerako garapen metodologikorako gomendioak eskaintzen dira.

4.1. Kategorien araberako gomendioak

Atal honen helburua da gida moduan funtzionatzea jadanik definituta dauden kategorien barruan zer-nolako aurrekontu-partidak sailkatu daitezkeen identifikatzeko. Horretarako, kategoria bakoitzaren definizio orokor bat eskaintzen da, eta, horrekin batera, gomendioak (bai orokorrak eta bai espezifikoak, hala dagokionean) eta Euskadiko aurreko urteetako Aurrekontu Orokorretatik ateratako adibide errealak ere.

Horrez gain, gastu mota jakin batzuk sailkatzera zuzendutako orientabide espezifikoak sartzen dira, hala nola pertsonalaren arloko gastuak, eta baita argibide partikularrak edo 1228 programari -

Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa- buruzkoak ere. Horiek kategoria tematikoetan sartuta ez badaude ere, atal espezifiko bat behar dute aplikatzekoak diren kontsiderazioak zehazteko.

4.1.1. Klima

Kategoria honetan sartzen diren partidak honako hauek dira: aldi berean klima-aldaketa arintzeari (BEGen isurketen murrizketa) eta klima-aldaketara egokitzeari (erresilientzia klima-inpaktuen aurrean) heltzen dieten partidak, helburu berberaren barruan. Klima-aldaketari eman beharreko erantzuna modu integralean indartu nahi dituzten bi ikuspegi horiek integratzen dituzten partidak kontsideratzen dira.

Gomendio orokorrak

- Bermatzea barne sartutako partidek modu esplizituan aurreikusten dituztela bai arintze-ekintzak eta bai egokitze-ekintzak, helburu berberaren barruan.
- Ez sartzea isurketak murriztera mugatzen diren neurriak, erresilientziari buruzko hobekuntzarik eskaini gabe, ezta egokitzapena soilik indartzen dutenak, deskarbonizazioari ekarpen garbirik egin gabe.

Gomendio espezifikoak: Nekazaritza

- “Ekoerregimenei” dagozkien aurrekontu-partidei kategoria hau asignatzen zaie, zeren zuzeneko ordainketak baitira, klimarako eta ingurumenerako onargarriak diren praktikak euren borondatez hartzen dituzten nekazariari egiten zaizkien ordainketetatik bereziak.
- Gisa berean, nekazaritza ekologikoa ere kategoria honetan kontsideratu behar da; izan ere, nekazaritza-praktika horren helburua da lurzoruaren egitura hobetzea, bere karbono-edukia handitzea, higadura eta desertifikazioa murriztea, berotegi-efektuko gasak murriztea, eta biodibertsitatearen alde egitea, zeren hori onuragarria baita bai klima-aldaketa arintzeko eta bai berari egokitzeko.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
7111	Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren garapena	2023/00098	Ekoregua
7111	Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren garapena	2024/00025	Ekoregua
sindato	EJGV1/Asignatu gabe	565/0014	1. helburu estrategikoa: klimaren aldeko ekintza.
4311	Egitura eta Sostengua. Lurralde, Etxebizitza eta Garraio P.	565/0014	1. helburu estrategikoa: klimaren aldeko ekintza.

4.1.2. Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa

Zenbait sektoretan BEGen isurketak murrizten, energia berriztagarriak sustatzen eta efizientzia energetikoa hobetzen laguntzen duten partidak sartzen ditu barne. Kategoria honetan, eguzki-energia eta energia eolikoa sortzen laguntzen duten programak kontsideratu daitezke, eta baita eraikinetako birgaikuntza energetikorako edo sare elektrikoaren modernizaziorako pizgarriak ere.

Ekintza horiek sistema energetiko garbiago eta efizienteago batera zuzendutako trantsizioa azkartu nahi dute.

Gomendio espezifikook: Energia

- Energiaren arloan, honako alderdi hauek hartzen dira aldekotzat: energia berriztagarriak, elektrifikazioa, efizientzia eta aurrezpen energetikorako neurriak, hidrogeno berdea, biogasa eta karbonorik gabeko edo karbono gutxiko beste bektore batzuk.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
7311	Energia eta Meatzaritza Politika eta Garapena	510/0003	Energia Eolikoko proiektuak
7212	Industria Garapena	2023/000589	Industria sektorerako laguntza, deskarbonizaziora 2023an iristeko
7311	Energia eta Meatzaritza Politika eta Garapena	510/0002	Eguzki-energia fotovoltaiakoko proiektuak
			Ikastetxe itunduetan obrak egiteko diru-laguntza, ikasgelan aldaketa metodologikoak bultzatzeko eta efizientzia energetikoa hobetzeko.
4222	Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	2024/000777	

4.1.3. Egokitzea eta arriskuen kudeaketa

Honako ekintza hauek hartzen ditu barne: klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna murriztera, azpiegitura erresilienteak indartzera eta klima-arriskuen kudeaketa hobetzera zuzendutakoak. Barne hartzen ditu hiri-drainaketako sistemak indartzeko proiektuak, uholdeak prebenitzek eta, baso-suteen aurrean babesteko neurriak, edo itsas mailaren igoerara egokitutako kostalde-azpiegiturarako inbertsioak; barne hartzen ditu, halaber, kalteak murrizten eta lurraldeen klima-erresilientzia segurtatzen laguntzen duten neurri guztiak ere.

Gomendio orokorrak

- Gomendatzen da klima-arrisku garrantzitsuak ebaluatzea, hala nola suteak, uholdeak edo muturreko gertaerak, eta aurrekontu energetiko-klimatikoan sartzea haien kudeaketarako, egokitzapenerako eta lurraldearen erresilientziarako lagungarriak diren neurriak. Era horretan, arrisku horien aurreko kalteberatasuna murriztera zuzendutako inbertsioak aldeko gisa sailkatu beharko lirateke, egokitzapenaren eta arriskuen kudeaketaren esparruaren barruan.

Adibideak

Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
Plangintza eta Administrazio Hidraulikoa	450/0046	Uholdeen aurreko erresilientzia hobetzea
Plangintza eta Administrazio Hidraulikoa	450/0049	Segurtasun hidrikoa
Plangintza eta Administrazio Hidraulikoa	450/0020	Uholdeen aurreko erresilientziaren hobekuntzarekin lotutako azterlanak

4.1.4. Mugikortasun jasangarria

Ingurumen-inpaktu txikiagoko garraioa sustatzeko ekimenak hartzen ditu barne, hala nola elektrifikazioa edo erregai fosilik erabiltzen ez duten ibilgailuak, garraio publikorako azpiegituren garapena, eta mugikortasun-modu jasangarriagoen sustapena. Horrenbestez, helburu hauetara zuzendutako pizgarriak sartzen dira: ibilgailu elektrikoek erosteko, garraio publikoko sareen hedapena -hala nola metroak, tranbiak, autobusak eta trenbideak- edo bidegorrien sorrera.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0150	Metro Bilbaoren 5.L
7311	Energia eta Meatzaritza Politika eta Garapena	430/2205	Hidrogenoa kargatzeko puntuak, eta mugikortasunean erabiltzeko
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0056	Tranbiaren mantenua
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0060	Metro Bilbao. 1. eta 2. Lineak
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0163	Bilboko Trenbidea. Ubideen Geralekua
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	550/0141	Autobus elektrikoak: Metro Leioa – Unibertsit.
7212	Industria garapena	2022/001795	PIIE – EEE – MUBIL ekimena

4.1.5. Trenbideen mantenua

Barne hartzen ditu trenbide-azpiegituraren kontserbazio eta hobekuntzara zuzendutako baliabideak, haien operatibotasuna eta efizientzia bermatuz, zeren trenbidea alternatiba jasangarri bat baita bidaiarien eta merkantzien errepide-garraiorako. Trenbideak modernizatzeko, geltokiak berritzeko eta egokitzeko, eta trenak mantentzeko proiektuak kontsideratzen dira.

Gomendio orokorrak

- Ez dira sartzen pertsonalaren arloko gastuak, energia-gastua, papertegi-gastuak... baizik eta trenbideen eta trenen mantenuarekin zuzeneko lotura dutenak soilik.
- Arrazoi berberetatik, “tailerren erreforma eta konponketek” dagozkin partidak “neutro edo definitu gabeko” gisa kategorizatzen dira.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0057	Trenbide-mantenua
			Zumaiako geltokiaren egokitzapena
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0148	
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	440/0114	Katigamendu berriak
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	550/0116	EMU 980 tren berriak
5131	Trenbide-garraioaren azpiegitura eta kudeaketa	550/2318	Funikularraren kotxeen erreforma

4.1.6. Trenbideen eraikuntza

Konektibitatea hobetzera eta garraio jasangarria sustatzera zuzendutako trenbide-azpiegitura berrien garapenaz ari da. Trenbide-sarearen hedapena murriztu egin dezake errepide- eta aire-garraioarekiko mendekotasuna, BEGen isurketak jaitsiz eta garraio-sistemaren efizientzia hobetuz. Nolanahi ere, beraren inpaktua mistoa da: epe luzera mugikortasun jasangarriagoari laguntzen dion arren, materialen erabilera intentsiboa ere dakar berekin bere eraikuntza-fasean, eta baita lurzorua okupazioa ere; horrek badu eragina ekosistemen biodibertsitatean, eta, zeharkako eran, klima-aldaketakarako egokitzapenean ere.

Gomendio orokorrak

- Kategoria honetan, trenbide berrien eraikuntzarekin zuzeneko lotura duten gastuak soilik sartu dira.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
5136	Bilboko Hegoaldeko Trenbide-saihesbidea – Kudeaketa. Z. R		Bilboko Hegoaldeko Trenbide-saihesbidea. Kudeaketarako kredituak.
5135	EAEko Trenbide Sare Berria – Kudeaketarako kredituak	440/0067	Euskal Trenbide-sare berria. Kudeaketa-kredituak
5131	Trenbide-azpiegituraren azpiegitura eta kudeaketa	440/0066	Euskadiko Trenbide-sare berria.
5131	Trenbide-azpiegituraren azpiegitura eta kudeaketa	440/0147	Usurbilgo geltoki berria.
5131	Trenbide-azpiegituraren azpiegitura eta kudeaketa	440/0109	Zarauzko geltoki berria.
5131	EAEko Trenbide Sare Berria – Kudeaketarako kredituak	440/0156	Euskal Trenbide-sare berria. Bilboko sarbiderako obrak.

4.1.7. Ingurumena eta biodibertsitatea

Ekosistemak kontserbatzera, habitat naturalak lehengoratzera eta espezieak babestera zuzendutako ekintzak hartzen ditu barne. Neurri horiek, zeharkako eran, lagungarriak dira ingurumen-erresilientziarako, eta klimaren ondorio batzuk arindu ditzakete, hala nola desertifikazioa edo karbono-hustulekuen galera. Adibideen artean, honako hauek sartzen dira: basoberritzea, eremu babestuen sorrera eta fauna eta flora berreskuratzeko programak.

Gomendio orokorrak

- Gomendatzen da kategoria honetan sartzea biodibertsitatearen babesarekin eta ekosistemak lehengoratzearekin lotuta dauden aurrekontu-partidak, betiere zuzeneko edo zeharkako ekarpena egiten badiote klima-aldaketaen aurreko erresilientziari.

Adibideak

ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA METODOLOGIKOA

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
5121	Plangintza eta Administrazio Hidraulikoa	450/0047	Ur-ekosistemak eta biodibertsitatea lehengoratzeko eta babestea
5121	Plangintza eta Administrazio Hidraulikoa	450/0018	Ur-ekosistemak eta biodibertsitatea lehengoratzeko eta babestearekin lotutako azterlanak
1228	Berreskurapen eta erresilientzia mekanismoa	2022/00204	Troya Meategia lehengoratzeko jarduketak
4311	Egitura eta Sostengua. Lurralde, Etxebizitza eta Garraio Politikak	565/0016	3. helburu estrategikoa: ingurumena babestea
4421	Ingurumenaren babesa	2023/00069	Ingurumena babesteko 2023ko diru-laguntzak, enpresei zuzendutakoak
5131	EAEko Trenbide Sare Berria – Kudeaketarako kredituak	440/0156	Euskal Trenbide-sare berria. Bilboko sarbiderako obrak.

4.1.8. Ekonomia zirkularra eta hondakinak

Besteak beste, materialen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena sustatzen dituzten ekimenak hartzen ditu barne, zeren hori lagungarria baita baliabide naturalen gaineko presioa jaisteko eta hondakinak sortzeko eta ezabatzeko prozesuei lotutako isurketak murrizteko. Hondakinen kudeaketa efizienteari laguntzea, ekodiseinua sustatzea eta material industrialen berrerabilera estrategiak helburutzat dituzten partidak sartzen dira barne.

Gomendio orokorrak

- Kategoria honetan, gai hauekin zerikusia duten aurrekontu-partidak sartu behar dira: hondakinen prebentzioa, birziklapenaren sustapena, materialen balorizazioa, eta ekoizpen-prozesuen eraldaketa, eredu zirkularretara pasatzeko.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
4421	Ingurumenaren babesa	2024/000 291	2024ko Ekoberrikuntza zirkularrerako diru-laguntzak
			Hondakineterako azpiegituren lurralde-plan sektoriala
4421	Ingurumenaren babesa	2023/001 107	
4421	Ingurumenaren babesa	2022/001 211	2023erako hondakinen Planaren lehentasunezko jarduketak
4421	Ingurumenaren babesa	2024/000 285	Ekonomia zirkularreko jarduketak hondakinen kudeaketan

4.1.9. Jasangarritasuna eta 2030 Agenda

GHJekin eta horiek 2030ean betetzeko agendarekin lerrokatutako neurriak sartzen ditu barne, garapen ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa modu orekatuan sustatuz. Ekintza horien artean, ingurumen-hezkuntzakoak sar daitezke, eta baita eredu jasangarriagorako trantsizioa indartzen duten ekoizpen eta kontsumo arduratuko politikak ere.

Gomendio espezifikoak: Nekazaritza

- NPB⁷ Programa (Nekazaritza Politika Bateratua) 2023ko eta 2024ko aurrekontu-partida batzuetan kontsideratu zen, eta garrantzitsua da kontuan hartzea partiden sailkapenean etorkizunean egon litezkeen aldaketen aurrean:
 - o Borondatezko lotutako ordainketak⁸ (2023ko aurrekontua): borondatezko lotutako ordainketa labore jakin batzuen ekoizpenari edo abeltzaintza-jarduera espezifikoetarako lotutako laguntzak dira. Ordainketa horiek diseinatuta daude zailtasun bereziak dituzten edo jasangarritasun aldetik balio handia duten sektoreei laguntzeko. Hauek “partzialki aldeko” gisa sailkatzen dira, *jasangarritasuna eta 2030 agenda* kategorian.
 - o Oinarrizko ordainketak (2023ko aurrekontua): eskualde-irizpideen eta irizpide sozioekonomikoen arabera nekazariari asignatutako ordainketa-eskubideetan oinarritzen dira. “Neutro edo definitu gabeko” kontsideratzen dira, ez dutelako jasangarritasunari laguntzeko helburu garbi eta espliziturik.
 - o Jasangarritasunerako Errentarako Oinarrizko Laguntza (JEOL)⁹ (2024ko aurrekontua): JEOL nekazarien errentari laguntzeko sistema bat da, ekoizpenetik berezia. Oinarrizko ordainketaren lehengo erregimena ordeztzen du, eta eskualde-eredu sinplifikatu batean oinarritutako ordainketa-eskubide moduan ematen da. Bere helburua da nekazaritza-errenta bideragarri bat bermatzea eta nekazaritza-sektorearen erresilientziari laguntzea, elikadura-segurtasuna hobetuz eta nekazaritza-ekoizpenaren jasangarritasun ekonomikoa bermatuz. Garapen-araudiak jasangarritasun-irizpideak bere hiru eremuetan kontuan hartzen dituenek, “partzialki aldeko” gisa sailkatzen dira, *jasangarritasuna eta 2030 agenda* kategorian.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
1122	Gizarte-trantsizioa eta 2030 Agenda	2021/00043	2020 Agenda: Bonuen programa
1122	Gizarte-trantsizioa eta 2030 Agenda	2021/00043	Gizarte-berrikuntzaren eta 2030 Agendaren arloko esperientzia pilotuen eta proiektu traktoreen
3222	Gazteria	2023/00054	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), 2030 Agendaren sustapena

4.1.10. Eraikinen birgaikuntza eta erreforma

Oraingo azpiegituren modernizazioa eta hobekuntza kontsideratzen ditu, efizientzia energetikoa eta jasangarritasuna irizpidetzat hartuta. Isolamendu termikoa hobetu, kontsumo energetikoa murriztu eta material jasangarrien erabilera sustatzen denez, esku-hartze horiek lagungarriak dira isurketak murrizteko eta baliabideen erabilera optimizatzeko.

⁷ Ikus Nekazaritza Politika Bateratuaren ohar teknikoa: [NPB](#) (Espainiako Gobernua, 2015)

⁸ Ikus: [Borondatezko lotutako ordainketak](#) (Agro popular, 2022)

⁹ Ikus: [Jasangarritasunerako oinarrizko laguntza](#) (Espainiako Gobernua, 2025)

Gomendioak

- Garrantzitsua da kontuan hartzea birgaikuntza- eta erreforma-jarduerak oraingo azpiegituretan egin behar direla, eta, ahal izanez gero, segurtatu behar da hobekuntzak egiten direla haien efizientzia energetikoan.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
4312	Etxebizitza	2024/000601	Etxebizitzak birgaitzeko 2024ko diru-laguntzak
4312	Etxebizitza	2023/000629	Etxebizitzak birgaitzeko 2023ko diru-laguntzak
1228	Berreskurapen eta erresilientzia mekanismoa	2022/001556	Eraikin Publikoak Bultzatzeko eta Birgaitzeko programa (PIREP)
1411	Justizia Administrazioa	2023/000369	Eraikin judizialak birgaitzea eta eraikitzea (Ibañez de Bilbao)
5413	Teknologia	522/0028	54 RCSH eraikinaren birgaikuntza

4.1.11. Eraikinen eraikuntza berriak

Barne hartzen du eraikinen garapena, batez ere bizilekuena. Kategoria honek barne hartzen ditu oraingo eraikinak, zeren indarrean dagoen legediagatik efizienteagoak izaten baitira energiaren ikuspuntutik, energia-kontsumoa eta isurketa haien operazioan murriztuz.

Gomendio orokorrak

- “Eraikin berrien eraikuntza edo eraikingintzari” erreferentzia garbia egiten dieten partidak soilik sartu behar dira.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
4312	Etxebizitza	560/0080	B-55 Sestao Galindoko Ibarra 106 BOEa
4312	Etxebizitza	560/0068	B-47 Bolueta 92 BOE + 54 BOE
4312	Etxebizitza	560/0098	G077 Zumarraga Elizagaberri 36GE+72BOEa
4312	Etxebizitza	560/0045	B-82 Barakaldo Karmen 85 GE
4312	Etxebizitza	560/0115	G074 Zarautz SAlberdin R-9 86 BOEa
4312	Etxebizitza	560/0166	G-075 Hondarribia presa 166 BOEa

4.1.12. Urbanizazioa

Barne hartzen ditu hiri-eremuen hedakuntza eta lurzoruen erabilera eraldatzen duten azpiegitura berrien garapena.

Gomendio orokorrak

- Kategoria honetan ez da sartzen aurretik erabilera edo okupazioen bat zuten eremuen urbanizazioa; izan ere, horrek ez du eskatzen ekosistemen desplazamendua edo lurzoru naturalen eraldaketak. Adibidez, industrialdeen birgaikuntzarako urbanizazioa.

Adibideak

ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA METODOLOGIKOA

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
4312	Etxebizitza	560/0040	001 Zorrotzaurreko urbanizazioa
5413	Teknologia	521/0039	Zamudio-Derio campusaren urbanizazioa
4312	Etxebizitza	2019/004081	Urbanizazio-obrak lurzoru publikoko bizileku-
2223	Ertzaintza Zerbitzuan	2024/793301	Zarauzko Ertzaintza-etxearen obra gauzatzea –

4.1.13. Aire-garraioa

Aireportuei, aire-flotari eta abiazioari lotutako beste azpiegitura batzuetara zuzendutako inbertsioak hartzen ditu barne. Sektore hau oso intentsiboa da karbono aldetik, eta ingurumen-aztarna handia du erregai fosilen kontsumoagatik eta BEGak altitude handian isurtzeagatik, eta horren areagotzen du bere klima-inpaktua.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
5141	Garraioaren plangintza	2019/003828	VIA aireportu-sustapena
5141	Garraioaren plangintza	2019/003829	Ortizia bia aireportu-sustapena

4.1.14. Baliabide naturalen erauzketa

Mineralen, erregai fosilen, uraren eta lurpeko edo lurraren azaleko beste baliabide batzuen ustiapenarekin lotutako jarduerak hartzen ditu barne. Bere inpaktu negatiboaren kausak honako hauek dira: ekosistemen degradazioa, isurketa eta hondakinen sorrera handia, eta ziklo naturalen alterazioa.

Gomendio orokorrak

- Uraren erauzketarekin zerikusia duten jardueren kasuan, gomendatzen da aztertzea ea erabilera jasangarrirako, efizientziarako edo klima-aldaketara egokitzeko ikuspeirik ote dagoen; bestela, ez-aldeko gisa sailkatu behar dira.
- Baliabide naturalen erauzketaren partiden kasuan, iradokitzen da modu espezifikoan ebaluatzea ingurumen-lehengoratzeari, konpentsazio ekologikoari edo inpaktu txikiko teknologiei buruzko neurri esplizituak barne hartzen dituztenak, jardueraren berezko izaera negatiboa aldatu ez arren.

Adibideak

Programa	Programaren xehetasuna	Proiektua	Proiektuaren xehetasuna
	Daturik gabe EJGV/1/Asignatu gabe	511/0006	Viura ustiapenaren emakida
7311	Energia eta Meatzaritza Politika eta Garapena	511/0006	Viura ustiapenaren emakida

4.1.15. Errepide-garraioa¹⁰

Lehorreko garraio motorizaturako azpiegituren hedakuntza (eraikuntza) hartzen du barne, errepideak eta autopistak barne sartuta. Mota horretako garraioak erregai fosilekiko mendekotasuna du, neurri handi batean, isurketa esanguratsuak sortuz eta, horrela, BEGen gehikuntza eta airearen kutsadura bultzatuz.

4.1.16. Pertsonalaren arloko gastuak

Pertsonalaren arloko gastuak “neutro edo definitu gabeko” gisa sailkatu dira. Frantziako Gobernuak erabilitako metodologian, ekintza edo helburu energetiko-klimatiko espezifiko bat sostengatzen duten pertsonen espezifikoki zuzenduta daudenean soilik hartzen dira aldekotzat. Adibidez, partida baten helburua baldin bada “pertsonen zerbitzuengatik ordaintzea klima-politika bat diseinatzeko”, aldeko gisa sailkatuko litzateke. Gastuak zuzeneko inpaktu energetiko-klimatikorik ez duenean edo gastu administratibo orokorreki dagokienean, aldiz, neutro edo definitu gabeko gisa mantentzen da.

Gomendio orokorrak

- 2023, 2024 eta 2025eko aurrekontu-ekitaldietan, ez da pertsonalaren arloko gasturik kontsideratu. Gomendatzen da etorkizuneko ekitaldietan kalkulatu dadila aldekotzat edo partzialki aldekotzat hartutako jardueretan zuzenean aritzen den pertsonalaren ordu-karga, eta partida horretatik dagokion ehunekoa pertsonal horren gastuei asignatu dakiela.

4.1.17. Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa

Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa¹¹, Europar Batasunaren aldi baterako funts bat denez, 2026era arte indarrean dagoena, ez da sartzen emaitzen aurkezpenean. Nolanahi ere, programa horren partidak ebaluatu dira aztergai dauden kategorien barruan, gastu energetiko-klimatikoetan duten inpaktua aztertzeko.

Gomendio orokorrak

- Gomendatzen da partiden ebaluazio normala egitea, azterketari begira, baina azken emaitzetan sartu gabe.

¹⁰ Kategoria honetarako ez da aurrekontu-partidarik aurkitu.

¹¹ Ikus: [Berreskurapen eta erresilientzia mekanismoa](#) (Europako Batzordea, 2024)

4.2. Epe luzerako garapen metodologikorako gomendioak

4.2.1. Ogasun eta Finantza Sailaren aurrekontu-sisteman automatizatzeko kodeak

Gida hau hurrengo urteetako (2026etik aurrera) aurrekontu energetiko-klimatikoaren estimazioa errazteko xedez egin da, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak exijitzen duen bezala; izan ere, beraren hirugarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen du: "legea indarrean jarri eta 18 hilabeteko epean, legea betetzera bideratuko diren aurrekontu-partidak identifikatzeko eta sortzeko gidalerroak landuko dituzte Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-alaketaren arloan eskumena duten sailek eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak".

Prozesu hori errazteko xedez, proposatzen da kode-sistema bat sortzea kategoria bakoitzeko, partidak erraz sailkatu ahal izateko. Kode bat aukeratzekoan, automatikoki kargatuko dira dagokion mota, asignatutako ehunekoa eta eurotan egindako kalkulua.

6. Taulan, sistema horren hasierako proposamen bat aurkezten da, abiapuntu gisa.

1. Taula. Kategoriaren arabeko kodeak eta informazioa, sistematizaziorako

Kategoria	Kodea	Ari. /Egok.	Etiketa mota	% Ald.	% Ez-ald.	% Mistoa
Klima	KLIMA	Arintzea eta egokitzea	Aldekoa	% 100	0 %	% 0
Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa	ARINDU	Arintzea	Aldekoa	% 100	0 %	% 0
Egokitzea, Arriskuen kudeketa, Erresilientzia	EGOKI	Egokitzea	Aldekoa	% 100	0 %	% 0
Mugikortasuna jasangarria	MUG	Arintzea	Aldekoa	% 100	% 0	% 0
Trenbideen mantenua	TRENMAN	Arintzea	Aldekoa	% 100	% 0	% 0
Trenbideen eraikuntza	TRENERAIK	Arintzea	Mistoa	% 0	% 0	% 100

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

Ingurumena eta biodibertsitatea	INGURUBIO	Arintzea eta egokitzea	Partzialki aldekoa	% 33	% 0	% 0
Ekonomia Zirkularra eta Hondakinak	EZHON	Arintzea	Partzialki aldekoa	% 17	% 0	% 0
Jasangarritasuna eta 2030 Agenda	J2030A	Arintzea eta egokitzea	Partzialki aldekoa f	% 12	% 0	% 0
Eraikinen birgaikuntza eta erreforma	BIRGAIERRE	Arintzea	Partzialki aldekoa	% 15	% 0	0 %
Eraikinen eraikuntza berriak	ERAIKUN	Arintzea	Partzialki aldekoa	% 6	% 0	0 %
Urbanizazioa	URB	Arintzea	Partzialki ez-aldekoa	% 0	% 20	0 %
Aire-garraioa	AIREG	Arintzea	Ez-aldekoa	% 0	% 100	% 0
Baliabide naturalen erauzketa	ERAUZK	Arintzea	Ez-aldekoa	% 0	% 100	% 0
Errepide-garraioa	ERREPIDE	Arintzea	Ez-aldekoa	% 0	% 100	% 0

4.2.2. Ebaluazio-batzordearen sorrera, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Sailkapen prozesua gainbegiratzeaz eta balidatzeaz arduratuko den batzorde espezializatu bat eratu behar da. Batzorde horren osaerak legezko betekizunak bete behar ditu eta ingurumen, ekonomia eta aurrekontuen arloan adituak diren pertsonen osatuta egon behar ditu.

4.2.3. Eskualde-testuingururako azterlan teknikoak

Gida hau oinarritu denez, neurri handi batean, Frantziako Gobernuak garatutako metodologian, gomendatzen da tokiko errealitatera egokitutako ikerketak garatzea. Hori bereziki garrantzitsua da eremu jakin batzuetan, hala nola eraikinen berrikuntzan edo eraikuntza berrietan, zeren baldintza teknikoak eta arauzkoak aldatu egin baitaitezke hor. Era horretan, 5. Taulako ehunekoak egokitu ahal izango dira.

4.2.4. Metodologiaren urteko egokitzapena eta berrikuspena

Gomendatzen da erabilitako metodologia aldizka eguneratzea, ebidentzia zientifiko berriak, erregulazio-aldaketak eta nazioarteko jardunbide egokiak gehituz. Horrek ahalbidetuko du zehatzagoa den eta trantsizio energetiko eta klimatikoarekin helburuekin bat datorren sailkapen bat prestatzea.

5. Eranskinak

I Eranskina. Aurrekontu-partidak sailkatzeko kategorien balorazioaren eta asignatutako ehunekoen azalpena

Kategoria	Etiketatzeari	Azalpena
- Klima - Arintzea, deskarbonizazioa eta efizientzia energetikoa. - Egokitzea eta arriskuen kudeaketa. - Mugikortasun jasangarria.	% 100 - aldekoa	Kategoria hauek zuzeneko ekarpena egiten diete, % 100 positiboa, klima-aldaketaren helburuei, Europako eta nazioarteko metodologia batzuek modu esplizituan aitortzen duten bezala. Horien artean, Europako Batzordeak aurrekontuak ikuspegi ekologikotik egiteari begira 2022an landu zuen erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologia, eta Rioko Markatzaileak.
Trenbideen mantenua.	% 100 - aldekoa	Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologiaren arabera, trenbide-azpiegituren mantenua % 100 aldekotzat jotzen da klima-aldaketa arintzeko, zeren zuzeneko ekarpena egiten baitio isurketa gutxiko garraio publiko jasangarriaren sustapenari. Trenbide-linea berrien eraikuntzak ez bezala, jarduera honek ez du inpaktu negatibo esanguratsurik sortzen lurzorua erabileran, eta ez du obra zibilekin lotutako isurketa berririk sortzen. Aitzitik, jadanik existitzen den eta garraio-sektorearen deskarbonizazioa sustatzen duen azpiegitura bat mantentzen du funtzionamenduan.
Trenbideen eraikuntza.	% 100 Mistoa	Frantziako Gobernuaren aurrekontu berdeen metodologiari jarraituz, kontsideratzen da Trenbideen eraikuntzak ekarpen positiboa egiten duela klima-aldaketa arintzeko eta kutsadura murrizteko; aldi berean, baina, badu inpaktu negatiboa biodibertsitatean eta hondakinen sorreran, eta zeharkako afekzioa izan dezake klima-aldaketa arintzeko eta berari egokitzen helburuan.

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

Ingurumena eta biodibertsitatea.	% 33 – partzialki aldekoa	Ingurumena eta biodibertsitatea babesteko jarduketak sustatzen dituzten aurrekontu-partidei dagokionez, partida horiek zer ehunekotan diren partzialki aldekoak determinatzeko erabilitako metodologia EBko Taxonomiaren egituran oinarritzen da; honek sei ingurumen-helburu ezartzen ditu, eta horietako bik zuzeneko lotura dute klima-aldaketarekin: klima-aldaketa arintzea eta klima-aldaketara egokitzea. Bi helburu horiek ingurumen-helburu guztien herenak direnez ($2/6 = \% 33$), proportzio hori aplikatzen da. Biodibertsitatea babestera zuzendutako partidak ingurumen-partida orokorrak edukitzen dituzte sarritan; partida horiek lagungarriak dira europar taxonomiaren helburuetarako, eta, gainera, biodibertsitatearen babesak, orokorrean, bere ekarpena egiten die arintzeko eta egokitzeko helburuei, zeharka, eta horregatik mantendu egin da % 33aren proportzioa.
Ekonomia zirkularra eta hondakinak.	% 17 – partzialki aldekoa	Ez dago adostasun metodologiko bateraturik, nazioartean, ekonomia zirkularrarekin lotutako klima-sailkapenerako, baina ekonomia zirkularrak zeharkako ekarpena egiten dio EBko Taxonomiaren 2 klima-helburuetako bati. Ingurumen eta biodibertsitatearen kategoriarekin erabilitako ikuspegiarekin koherentzia gorde nahirik, partzialki aldekoa kontsideratzen da, proportzio honetan: $1/6 = \% 17$.
Jasangarritasuna, eta 2030 Agenda.	GJH % 12 – partzialki aldekoa	2030 Agenda hedatzen laguntzen duten partidetan, ingurumen-inpaktua ezin isolatu daitekeenean, GJHen egitura hartzen da erreferentziazko irizpide bezala. 17 GJHetatik, bik zuzeneko lotura dute klima-aldaketarekin: 13. GJH (Klimaren aldeko ekintza) eta, kasu batzuetan, 7. GJH (Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria). Horrenbestez, % 12 asignatzen da klima-ehuneko gisa. Beste alde batetik, jasangarritasunak 3 ikuspegi ditu: ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa. Horren ondorioz, informazio gehiagorik eduki ezean, jasangarritasuna hobetzerantz zuzendutako partida orokorrak % 33ean baloratu beharko dira ingurumenekotzat. Beraz, ingurumen-partidak sailkatzen erabilitako irizpidea kontsideratuz, aldekotzat hartuko lirateke % 11n (% 33ren % 33). Erraztasunagatik eta

**ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA
METODOLOGIKOA**

2030 Agenda hedatzen laguntzen duten partidekiko koherentziagatik, % 12ko inpaktu positiboa mantentzen da.

Eraikinen birgaikuntza eta erreforma.	% 15 – partzialki aldekoa	Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologiaren arabera, eraikinak birgaitzeko eta erreformatzeko proiektuek % 15eko inpaktu positiboa dute klima-aldaketa arintzeko helburuan. Estimazio horiek 'Klima-aldaketaren aurkako borroka (DPT Climat)' izeneko zeharkako politikako dokumentuan oinarritzen da; izan ere, bertan identifikatzen da eraikinen modernizazioaren % 15 inguru hobekuntza termikoetara bideratzen dela, hala nola isolamendura, efizientzia energetikora eta klimatizazio-sistemetara.
Eraikinen berriak.	% 6 – partzialki aldekoa.+	Eraikuntza berrietarako, % 6ko aldekoa asignatzen da, Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologiarekin bat etorritik. Hala, RT 2012 (Réglementation Thermique 2012) araudi termikoan oinarritzen den metodologia horrek estimatzen du osoko gastuaren ehuneko hori dagokiela diseinuan eta eraikuntzan txertatutako efizientzia energetikoko neurriei -neurri horiek isurketak murrizten laguntzen dute-.
Urbanizazioa.	% 20 – partzialki ez-aldekoa	Urbanizazio kategoriari % 20ko ez-aldekoa asignatzen zaio, Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologiarekin bat etorritik, zeren honek kontsideratzen baititu lurzoruen okupazioari, lurra iragazgaizteari eta ekosistemen zatiketari lotutako inpaktu negatiboak.
- Aire-garraioa. - Baliabide naturalen erauzketa. - Errepide-garraioa.	% 100 – ez-aldekoa	Kategoria hauek kaltegarriak (ez-aldekoak) kontsideratzen dira berez, klima-ikuspegitik, zeren zuzeneko inpaktu handia baitute BEGen isurketen igoeran, erregai fosilen erabilera intentsiboan eta horri lotutako ingurumen-degradazioan. Irizpide hori bat dator europar eta nazioarteko metodologietan ezarritakoarekin. Horien artean daude Europako Batzordeak aurrekontuak ikuspegi ekologikotik egiteari begira 2022an landu zuen erreferentzia-esparrua, Frantziako Gobernuak aurrekontu berdeak prestatzeko erabiltzen duen metodologia, eta Rioko Markatzaileak.

II Eranskina. Nazioarteko ikuspegi metodologikoak

Jarraian, xehetasun handiagoz azaltzen dira Rioko Markatzaileak eta Frantziako Gobernuak erabilitako metodologia.

Rioko Markatzaileak¹²

Rioko Markatzaileak Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) 1992an garatutako metodologia bat da, helburutzat duena inbertsioen eta gastu publikoaren klima-inpaktua sailkatzea eta ebaluatzea. Bereziki erabiltzen dira aztertze noraino lerrokatzen diren aurrekontu nazionalak nazioarteko lankidetzak klima-konpromisoekin, hala nola Parisko Akordioan ezarritakoekin.

Ikuspegi teknikitik, Rioko Markatzaileak ahalbidetzen dute ehuneko bat asignatzea aurrekontu-partida bakoitzari, klima- edo ingurumen-helburuei egiten dien ekarpenaren arabera. Metodologia hiru kategoriatan nagusitan oinarritzen da. Kategoriatan horiek islatzen dute inbertsioak eta gastuak duten garrantzia, klima-aldaketari dagokionez; bertan, markatzaile bakoitzak puntuazio bat eta haztapen-ehuneko bat jasotzen du:

- Nagusia (Puntuazioa: 2; % 100): Asignatzen da ekintzaren helburu nagusia klima-aldaketa arintzea edo berari egokitzea denean. Kasu horretan, gastua bere klima-ekarpenagatik soilik justifikatzen da. Adibidea: Energia berriztagarrien programak, basoberritze masiboa, azpiegitura kritikoak muturreko klima-gertaeretara egokitzea.
- Esanguratsua (puntuazioa: 1; % 40): Asignatzen da ekintzak klima-helburu esanguratsua duenean, baina hori bere helburu nagusia izan gabe. Hau da, neurria beste arrazoi batzuegatik inplementatzen da (sozialak, ekonomikoak, azpiegituretakoak), baina onura esanguratsuak dakartza berekin arintze- edo-egokitze-helbururako. Adibidea: Eraikinen birgaikuntza energetikoa; efizientzia hidrikoko hobekuntzak nekazaritza-sistemetan.
- Orientatuta ez dagoena (puntuazioa: 0; % 0): Aplikatzen da gastuak ez duenean klima-helburu espezifikorik eta ekarpen esanguratsurik egiten ez denean arintze- edo egokitze-helburuari. Adibidea: Errepide konbentzionalak irizpide jasangarririk gabe eraikitzea, proiektuak ingurumen-kontsideraziorik gabe garatzea.

Frantziako Gobernuaren aurrekontu berdeak prestatzeko metodologia¹³

Frantziako Gobernuak ikuspegi metodologiko propio bat garatu du, Europako Batzordearen aurrekontua ikuspegi ekologikotik egiteko erreferentzia-esparruarekin lerrokatuta, bere aurrekontuen ingurumen- eta klima-inpaktua ebaluatze, 2018/1317 Aurrekontu Legeari

¹² Ikus: [Short guide to use rio markers](#)

¹³ Ikus: [Webgunea – Frantziako aurrekontu berdea](#)

erantzunez. Legeak ezarri zuen trantsizio ekologikoaren finantziazioari buruzko eranskin espezifiko bat aurkezteko betebeharra, aurrekontua herrialdeko ingurumen- eta klima-helburuekin bat zetorrela azpimarratzeko.

Metodologiak gastu publikoa sailkatzen du EBko Taxonomian¹⁴ definitutako sei ingurumen-helburuei egiten dioten ekarpenaren arabera:

- Klima-aldaketa arintzea
- Klima-aldaketara egokitzea
- Baliabide hidrikoen babesa
- Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa
- Kutsaduraren kontrako borroka.
- Biodibertsitatearen babesa.

Metodologiak lau gastu mota desberdin asignatzen ditu, aurreko ingurumen-helburuetan duten inpaktuaren arabera, puntuazioak ere erabiliz (-1, 0, 1, 2, 3) bere gastu motetarako:

- Aldekoa: Hau hiru motatan sailkatzen da
 - Zuzenekoak; Ingurumena babestera edo klima-aldaketaren aurkako borrokara esplizituki orientatutako jarduerak edo proiektuak finantzatzen dutenak. Puntuazioa: 3.
 - Zeharkakoak: Ingurumen-helburu esplizitu bat ez eduki arren ingurumen-onura sekundarioak sortzen dituzten partidak hartzen ditu barne. Puntuazioa: 2.
 - Aldekoak, baina eztabaidagarriak: Badituzte epe laburrerako inpaktuak, baina arriskuak edo ondorio negatiboak sor ditzakete epe luzera, hala nola *lock-in* teknologikoko arriskua edo jasangarritasun gutxiagoko soluzioekiko menpekotasuna. Puntuazioa: 1.
- Neutroa: Ingurumenean inpaktu esanguratsurik ez duten gastuak hartzen ditu barne, hau da, ingurumen-ondorio oso txikia edo horrelako ondoriorik ez duten partidak. Puntuazioa: 0.
- Ez-aldekoa: Barne hartzen ditu zuzeneko ingurumen-inpaktu negatiboa duten partidak edo ingurumenerako kaltegarriak diren praktikak sustatzen dituztenak, hala nola jarduera kutsagarrietarako pizgarriak. Puntuazioa: -1.
- Mistoak: Ekintza bakar bat aldekotzat edo ez-aldekotzat har daiteke. Horrelako kasuetan, puntuazioa asignatutako aldeko eta kontrako puntuazioen haztapenarekin egiten da.
- Etiketatu gabe: Haien ingurumen-inpaktua ezin determinatu daitekeen partidak dira, horien ebaluaziorako adostasun zientifikorik ez dagoelako edo datu nahikorik ez dagoelako.

¹⁴ EBko 2020/852 Erregelamendua, inbertsioak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa: [Ingurumen aldetik jasangarriak diren inbertsioen ebaluazioa](#)

Garrantzitsua da nabarmentzea ezen, gastu berdearen gehiegizko edo gutxiagozko estimazioa eragozteko, Frantziako Gobernuak jarduera batzuen azterketa zehatzak egiten dituela (hala nola eraikinen eraikuntza), zeren horrek ahalbidetzen baitu ingurumen- eta klima-helburuei egiten zaien ekarpenaren ehuneko espezifikoak xehetasunez asignatzea, jarduera edo proiektuen arabera. Gainera, kanpo uzten dira partida mota jakin batzuk, hala nola ondare-operazioak edo ingurumen-trazabilitate zaila duten gastuak.

Aurrekontuak ikuspegi berdetik prestatzeko metodologiaren garapena honako erakunde hauek gidatu zuten: Finantzen Ikuskaritza Nagusiak (IGF) eta Ingurumenerako eta Garapen Jasangarrirako Kontseilu Nagusiak (CGEDD). Klimarako Goi Kontseiluaren ardura da ebaluatzea ea politika publikoak bat ote datozen Parisko Akordioarekin, eta baita ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioak egitea, bi ex ante eta bai ex post.

Erreferentziak

- Agro popular. (2022). Futura PAC: Aclaraciones del FEGA sobre los pagos asociados.
- BID. (2022). *Marco conceptual para la clasificación del gasto público en cambio climático*. BID.
- Europako Batzordea. (2024). *Europar Berreskuratzen eta Erresilientzia Mekanismoa*. Hemendik aterata: https://commission.europa.eu/business-economy-euro/economic-recovery/recovery-and-resilience-facility_es
- European Union. (s.f.). *European Union Green Budgeting Reference Framework*. Hemendik aterata: https://economy-finance.ec.europa.eu/document/download/bfd8d6c1-d501-4cf2-873f-811f6453dde8_en?filename=European%20Union%20Green%20Budgeting%20Reference%20Framework.pdf
- Espainiako Gobernua. (2015). *NOTA TÉCNICA N° 02. Política Agrícola Común 2015-2020*.
- Espainiako Gobernua. (2023). *La transición ecológica en los Presupuestos Generales del Estado para 2023*.
- Espainiako Gobernua. (2025). *Fondo Español de Garantía Agraria O.A. (FEGA)*. Jasangarritasunerako erretarako oinarritzko laguntzatik aterata: <https://www.fega.gob.es/es/pepac-2023-2027/ayudas-directas/ayudas-directas-a-la-renta/ayuda-basica-renta-sostenibilidad>
- Frantziako Gobernua. (2024). *La plateforme des finances publiques, du budget de l'État et de la performance publique*. Obtenido de The French Green Budget : a transparency tool to serve the ecological transition: https://www.budget.gouv.fr/reperes/green_budgeting/articles/the-french-green-budget-a
- Frantziako Gobernua. (2024). *Report on the environmental impact of the central Government budget*.
- Ogasun Ministerioa (2025/03/05). *Fondos Europeos - Gobierno de España*. Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismotik aterata: <https://www.fondoseuropeos.hacienda.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/Paginas/MRR.aspx>
- I4CE. (2021). *Climate assessment of local authority budgets: methodological guide*.
- I4CE. (2023). *Greener, better, stronger: Factors for the successful implementation of green budgeting in EU Member States*. París.
- Kete, H. (2022). Green Budgeting: France and Italy practices. *International Journal of Social, Political and Financial Researches*, 102-115.
- ELGA. (2018/05/10). *Newsroom*. Hemendik aterata: New tutorial video on Rio markers launched: <https://ec.europa.eu/newsroom/intpa/items/635782/en#:~:text=Rio%20markers%20are%20used%20to%20indicate%20whether%20a,combating%20desertification%2C%20to%20climate%20change%20mitigation%20and%20For%20adaptation.>

ELGA. (2021). *Green Budgeting in OECD Countries*. París: OECD Publishing .

NBGP. (2016). *Klima Aldaketarako Gastu Publikoaren eta Instituzionaltasunaren Azterketa*.

Europar Batasuna. (2023). *How Green Budgeting is Embedded in National Budget Processes*.
Luxemburgo: Publications Office of the European Union.

